Itzea eta Larhun

Aurten, Julio Caroren jaiotzaren urtemuga baita, nonahi aipatuko dute barojatarren Berako etxea, “Itzea”. Hori dela eta, komeni da jakitea Euskaltzaindiak berak iritzia emana duela izen hori nola erabili behar dugun euskaraz, nola jokatu behar den. Euskararen Akademiak argitu du “Itzeko” erran eta idatzi beharko genukeela, “Itzeko borda” bezala, eta ez “Itzeako”; hari berari tiraka, “Itzetik”, eta ez “Itzeatik”, edo “Itzera”, eta ez “Itzeara”. Horixe da erraten digutena, eta iruditzen zait egokia dela horren berri izatea nire gisakoek berriz ere irrist ez egiteko.

Senperen (Lapurdi), Ainhize-Monjolosen (Nafarroa Beherea) eta Orendainen (Gipuzkoa) ere harrapatu dituzte izen bertsuko etxeak: Ihitzea, Itzea. Beran, etxeak eta auzoak izen bera dute; nola sortu ote zen deitura hori? Gaia begiratzen ibili direnek “ihi”tik heldu dela erraten dute; haien ustez, “itzea” “ihitzea” da, “ihi tokia”. Segur aski hala izanen da.

Barojatarrek 1912. urtean erosi zuten, baina haiek sartu baino lehenago bertze destino batzuk izan zituen; konparazio batera, karabineroen kuartela ere izan omen zen. Etxea konpondu bitartean, Alkatenean jarri ziren bizitzen, Estankokoa ere erraten genion etxean, orain dena bota eta berritik egiten ari diren horretan; hor bizi zirela hil zen familiako aita, Serafin, 1913an.

Julio Carok familiari buruz idatzi zuen liburu jorian kontatzen du osaba Píoren ideia izan zela etxea Beran erostea *(Los Baroja. Memorias familiares)*. Haren ama Carmenek ere gauza bera erraten du bere oroitzapenen kontakizun izugarri interesgarrian *(Recuerdos de una mujer de la generación del 98)*. Eta idazleak berak, Píok alegia, Guía del Pais Vasco izeneko obran argitzen du halaxe izan zela, berak erabaki zuela Itzea erostea uda partea Bidasoaldean pasatzeko, garai hartan Madrilen bizi baitziren denak.

Gerora, Pío Carok erran izan du etxe horrek lehenago ere bazuela lotura familiarekin, Altzatetarrena izana zelakoz. Oroitu behar da Pío, Ricardo eta Carmenen amatxi, amaren aldetik, Gertrudis Goñi Altzate zela, Julio eta Pío Caroren birramatxi. Baliteke horrek ere nolabaiteko pisua izatea Pío idazleak etxeari begia emateko.

Etxea ez da nolanahikoa, ezin ondotik pasatu hari erreparatu gabe. Tamainagatik eta itxuragatik ezagun du etxe berezia dela, eta palazioaren kategoria ere ematen zaio. Barojatarrek konpondu zuten, eta hornitu ere bai, bertzeak bertze liburutegi eder batez. Familia ospetsuari buruz galdeka Berara etorri diren kanpotar gehienek bisitatu dute, eta iduri du idazleak eta ikertzaileak adina fama hartu duela etxeak berak. Bizilagun ezagunak hiltzen joan dira, baina berak hortxe irauten du, zutik eta harro, Xantelerrekaren ondoan.

Sara, Azkaine eta Urruñako herriekin partxon dugun mendiaren izenaz ere aritu dira Euskaltzaindian berriki. Gauza jakina da ez dugula alde batean eta bertzean igual-igual nonbratzen: Larun, Larrun. Hori hala da, eta berdin segituko du hemendik aitzinera ere. Bertzerik da nola idatzi behar dugun. Historian eta gaur egun ere hagitz diferente eskribiturik ikusi dugu han eta hemen: La Rhune, Larroun, Larun, Larrun, Larhun, Larhune... Nahasgarri samarra. Nolabait ere hautsi behar zen izenaren kontu hau. Horregatik, Euskararen Akademiaren eginkizuna, bertze gauza aunitzen artean, tokien izenak nola idatzi behar ditugun argitzea baita, gaia aztertu eta euren erabakia jakinarazi dute. Euskaltzaindiak erran du honela idatzi behar dugula mendiaren izena: LARHUN. Beratarrontzat ez da forma arrotza; ikusia dugu lehenago ere horrela emana makina bat aldiz. Batzuk oroituko zarete txaranga batek horrelaxe bataiatu zuela bere burua, eta dantzatoki batek ere bai. Nolanahi ere, erabakia hartua dago; orain, jendeak kasu egitea eta errespetatzea bertzerik ez da falta.

Mikel Taberna Irazoki, “Kapi”